Minimizatze plana hondakin arriskutsu nagusiak identifikatzen, baloratzen eta kuantifikatzen saiatzen da. Horien artean, hidrokarburoak dituzten urak nabarmentzen dira, guztien erdia baino gehiago direlako, eta, ondoren, industria olio erabiliak eta bateriak. Hondakin horiek murrizteko hainbat muga dauden arren, murrizketa helburuak zehazteko neurri posibleak planteatu dira.

Laburbilduz, hauek dira murrizketa ekarriko duten neurriak:

- Hidrokarburoak dituzten urak: 2024an garbiketa zubi efizienteago bat erostea.
- Iragazkiak, bateriak, olio erabiliak eta izotzaren kontrako produktuak: flotaren elektrifikazio planak aurreikusten du 2022 – 2025 aldian ibilgailuen %33 berritzea, eta, ondorioz, diesel ibilgailu tradizionalen berezko hondakin gutxiago sortzea.

Ezarri beharreko gainerako neurriei dagokienez, oro har, jardunbide operatiboa hobetzeko neurriak dira, hondakinak bereizi eta kudeatzeko irizpideak argituz eta optimizatuz, arriskutsu ez diren hondakinak

Por otro lado, la CTSS está catalogada como "gran productor de residuos peligrosos" y cada cuatro años se realiza un plan de minimización de residuos analizando la evolución y planteando medidas para cumplir objetivos de reducción.

El plan de minimización trata de identificar, valorar y cuantificar los principales residuos peligrosos. Entre ellos destacan, por suponer más de la mitad del total, las aguas con hidrocarburos, seguidas por los aceites industriales usados y las baterías. A pesar de que existen múltiples limitaciones para reducir estos residuos, se han planteado posibles medidas para determinar los objetivos de reducción.

A modo de resumen, las medidas que redundarán en una reducción son:

- Aguas con hidrocarburos: adquisición de un nuevo puente de lavado más eficiente en 2024.
- Filtros, baterías, aceites usados y anticongelante: el plan de electrificación de la flota prevé una renovación del 33% en el periodo 2022 – 2025 y la consiguiente reducción en la generación de estos residuos propios de vehículos diésel tradicionales.

En lo referente al resto de medidas a implementar, en general, son de mejora de la práctica operativa, clarificando y optimizando los criterios de separación y gestión de residuos, evitando que pasen como peligrosos

arriskutsutzat ez jotzeko edo ahal den neurrian berrerabiliz. Neurri horiek lortzen duten minimizazioa txikia da, baina beren kostua zero da eta beste edozein neurriren aurretik hartu beharrekoak.

residuos que no lo son, o bien reutilizándolos en la medida en que sea posible. La minimización que logran estas medidas es baja, pero de coste cero y previa a cualquier otra medida.

Horrekin guztiarekin, eta betiere hondakin arriskutsu batzuen aldakortasuna eta aldizkakotasuna kontuan hartuta, lau urte igaro ondoren ibilgailu bakoitzak urtean 1,5 kg hondakin gutxiago sortzea aurreikusten da.

Con todo esto, y siempre teniendo en cuenta la variabilidad y no periodicidad de ciertos residuos peligrosos, se prevé que después de cuatro años cada vehículo genere 1,5 kg anuales menos.

3.1.4. Zuhurtasun printzipioa aplikatzea

DTKn ingurumena babestea bilatzen dugu, ingurune fisikoan ondorioak sor ditzaketen egoera potentzialei aurrea hartuz. Zentzu horretan, isurketei (instalazioetan eta bidean) eta suteei (instalazioetan eta bidean) lotutako arrisku nagusiak identifikatu dira, eta kasu bakoitzean jarduteko bitartekoak daude.

3.1.4. Aplicación del principio de precaución

En la CTSS buscamos la protección del medio ambiente a través de la prevención de situaciones potenciales que pudieran generar impactos en el medio físico. En este sentido se han identificado los principales riesgos con relación a vertidos (en instalaciones y en ruta) e incendios (en instalaciones y en ruta) y se dispone de medios de actuación para cada caso.

Konpainiak autobabeserako plan bat du, eta hor daude jasota ingurumen larrialdietan jarduteko jarraibideak. Larrialdietako langileek badute horri buruzko trebakuntza.

La Compañía dispone de un plan de autoprotección en el que se incluyen pautas de actuación en caso de emergencias medioambientales. El personal de emergencias está formado en el mismo.

Sentsibilizazio kanpaina puntualak egiten dira langileentzat, besteak beste, isurketak gertatuz gero edo hondakinak bereizi behar direnean nola jokatu behar den jakiteko.

Se realizan campañas de sensibilización puntuales para el personal sobre actuación en caso de vertidos, separación de residuos, etc.

Azkenik, autobusak eta instalazioak mantentzeko plan bat dago, behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko, eta gerta daitezkeen gorabeherak aurreikusteko.
Azkenik, kalte larria edo itzulezina gertatzeko arriskua identifikatzen bada, DTK-k ahalmena du kalteak minimizatzeko neurri egokiak zehazteko eta kostuen arabera eraginkorrenak hartzeko, ingurumenaren narriadura eragozteko.

Finalmente, se dispone de un plan de mantenimiento de autobuses e instalaciones que garantizan el correcto funcionamiento de las mismas, en previsión de posibles incidentes.
Finalmente, si se identifica un riesgo de daño grave o irreversible, la CTSS tiene la capacidad para determinar las medidas de minimización adecuadas y adoptar las más eficaces en función de los costes para impedir la degradación del medio ambiente.

3.1.5. Ingurumen arriskuetarako horniduren eta bermeen kopurua

DTK-k bere instalazio eta ibilgailuetan gertatzen diren istripuetarako hainbat aseguru poliza ditu, bai eta horiek hirugarrenei eragiten dizkietenerako ere. Nahikotzat jotzen da, bere jarduera eta eragiketa eremua kontuan hartuta (Donostiako hiri ingurunea).

3.1.5. Cantidad de provisiones y garantías para riesgos ambientales

La CTSS dispone de diferentes pólizas de seguro para accidentes en sus instalaciones y vehículos y en terceros ocasionados por éstos. Se considera suficiente dada su actividad y su ámbito de operación (entorno urbano de San Sebastián).

3.2. Kutsadura

3.2.1. Ingurumenean kalte larriak eragiten dituzten karbono igorpenak prebenitzeko, murrizteko edo konpontzeko neurriak (zarata eta argi kutsadura ere barne hartuta)

3.2. Contaminación

3.2.1. Medidas para prevenir, reducir o reparar las emisiones de carbono que afectan gravemente el medio ambiente (incluye también ruido y contaminación lumínica)

Erregai fosilaren kontsumoa eta, beraz, Dbusen ibilitako kilometro bakoitzeko gas igorpenak nabarmen murriztu dira, honako faktore hauei esker:

El consumo de combustible fósil y, por tanto, las emisiones de gases por kilómetro recorrido en Dbus se han visto reducidas considerablemente gracias a los siguientes factores:

- Gutxiago kutsatzen eta kontsumitzen duten ibilgailuak eskuratzea.
- Lineen kudeaketa eraginkorra eta bideen azterketa, kilometroei dagokienez ibilbiderik eraginkorrenak egiteko. Izan ere, 2024an egindako kilometro kopurua %0,4 murriztea lortu da 2023ko urtearekin alderatuta.
- Erregai kontsumoaren kontrol zorrotza, ibilgailuak eta egin beharreko ibilbideak hobetzeko alderdiak hautemateko.
- Gidariari laguntzeko sistema berritzaile bat erabiltzea, seguru eta efizientziaz gidatzeko (EKObus proiektua).

Era berean, 2024an batez beste 0,47 litro erregai kontsumitu dira ibilitako kilometroko, hiri garraioen sektoreko kontsumorik txikienetako bat. Batez besteko kontsumo hori, gainera, nabarmen jaitsi da 2014az geroztik. 2023an, halere, aurreko urtearekin alderatuta izan duen gorakada txiki hori faktore bat baino gehiagoren konbinazioagatik izan da. Faktore horietatik nabarmentzen dira 2022an flota berritu ez izana eta udako hilabeteetan batez besteko tenperaturak igo izana, klimatizazioa gehiago erabiltzea ekarri baitzuen. Aurreikuspenen arabera, 2024ko azken hiruhilekotik aurrera flotaren elektrifikazio masiboa hasiko dela eta horrek datu hori nabarmen jaistea ekarriko duela.

- La incorporación de vehículos menos contaminantes y de menor consumo.
- La eficiente gestión de las líneas y los estudios de las rutas para hacer los recorridos más eficientes en kilómetros. De hecho, en 2024 se ha conseguido reducir en un 0,4% el número de kilómetros recorridos en comparación al año 2023.
- El exhaustivo control del consumo de combustible para detectar aspectos de mejora en vehículos, rutas conducción.
- Utilización de un sistema innovador de ayuda al conductor/a orientado a la conducción segura y eficiente (Proyecto EKObus).

Asimismo, el consumo medio por kilómetro recorrido en 2024 ha sido de 0,47 litros, uno de los más bajos del sector urbano y que en la CTSS ha descendido considerablemente desde 2014. Sin embargo, en 2023, el ligero repunte con respecto al año anterior se debe a una combinación de factores, entre los que destacan la falta de renovación de flota en 2022 y el aumento de las temperaturas medias en los meses de verano, lo que provocó un mayor uso de la climatización. Se prevé que el inicio de la electrificación masiva de la flota a partir del último trimestre de 2024 suponga un descenso drástico de este dato.



Hurrengo grafikoetan autobusek azken urteetan izan duten bilakaera ikus daiteke: Euro 4 dira zaharrenak eta Euro 6 modernoenak. 2024ko flotak aurreko urteetan baino askoz gutxiago kutsatzen du, emisio mailarik altuenak zituzten autobusak desagertu dira-eta. Hurrengo grafikoan ikus daiteke hori.

2014: Dbus flota emisio mailaren arabera.

En los siguientes gráficos se aprecia la evolución de los autobuses durante los últimos años, siendo los Euro 4 los más antiguos y los Euro 6 los más modernos. La flota de 2024 es considerablemente menos contaminante que en los años anteriores como se puede apreciar en el siguiente gráfico, habiendo desaparecido los autobuses con los niveles de emisiones más altos:

2014: Flota Dbus según nivel emisiones.



2024: Dbus flota emisio mailaren arabera.

2024: Flota Dbus según nivel emisiones.



2024an, zerbitzua ematen duen flotaren %100 Euro 4tik gorakoa dago, eta flotaren %69 Euro 6ren gainetik dago jada. Autobus horiek une honetan diesel teknologiarako dauden autobusik garbienak dira, eta gas naturala (GNC) erabiltzen duten ibilgailuekin pareka daitezke.

Horiei 2024an operatibo egon diren zero emisioko 4 autobus %100 elektrikoak gehitu behar zaizkie. Flotaren %2,88 dira autobus horiek.

En 2024, el 100% de la flota en servicio se encuentra por encima de Euro 4, y un 69% de la flota se encuentra ya por encima de Euro 6. Estos autobuses son los autobuses más limpios que hay en estos momentos para tecnología diésel equiparándose a los vehículos de gas natural (GNC).

A esto hay que añadir los 4 autobuses 100% eléctricos cero emisiones que en 2024 han estado operativos, que representan el 2,88% de la flota.



2023an 20 autobus elektrikoen sorta baten erosketa esleitu zen eta erosketa horrekin hasi zen zero emisioko flota %100 elektrikorako behin betiko trantsizioa egiten. Autobus horiek 2024ko amaieran hasi dira flotan sartzen, eta aurreikusten da 2025ean emisio kutsagarrien murrizketa nabarmena ekarriko dutela.

Berotegi efektuko gasen isuriak murriztera zuzendutako ekintza guztiek **eragin handia dute klima aldaketaren** eta tokiko kutsaduraren **aurkako borrokan.**

DTKn azken urteotan egin den garapen guztia, bai eta gas emisioen kudeaketan eta eraginkortasunean lortutako hobekuntza ere, baliabideetan egindako inbertsio handi baten emaitza izan da, eta, hain zuzen, MITMAren bidez (Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa) Europar Batasunak

En 2023 se adjudicó la compra de un lote de 20 autobuses eléctricos que supone el comienzo de la transición definitiva a una flota 100% eléctrica cero emisiones. Estos autobuses han comenzado a incorporarse a la flota a finales de 2024, y se prevé que el impacto en la reducción de emisiones contaminantes sea notorio en 2025.

Todas las acciones orientadas a reducir las emisiones de gases de efecto invernadero y energía tienen un **gran impacto en la lucha contra el cambio climático** y la contaminación local.

Todo el desarrollo que se ha dado en la CTSS en los últimos años, así como la mejora en la gestión y eficiencia en emisiones de gases, ha requerido una gran inversión en medios para poder conseguirlo y se han podido realizar gracias a las aportaciones de los proyectos subvencionados por la Unión Europea a través

diruz lagundutako proiektuen ekarpenei esker lortu da.

Esan daiteke, baita ere, azken urteetan erregai alternatiboetan eta ingurumeneko kutsadura murrizteko bideetan aditu diren nazioarteko pertsona batzuek Dbus autobusen isurketen maila neurtu dutela eta balorazio bikaina eman diotela, beren autobusek ingurumenera egiten dituzten CO2 eta partikulen isurketen maila txikia delako.

Era berean, Konpainiaren instalazio finkoetan hainbat neurri ezartzen ari dira, hala nola instalazio pneumatikoaren ihesak minimizatzeko berrikuspenak egitea, instalazioen sistema termikoan hobekuntzak aztertzea, etab.

3.2.2. CO2 eq igorpenak

Kontsumoa murrizteak kilometroko CO2 isuriak gehiago murriztea ere ahalbidetu du azken urte hauetan. Murrizketa horrek bultzada nabarmena eduki du 2015. urteaz gero, flotan sartutako ibilgailu hibrido eta elektrikoei esker.

de MITMA (Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana).

Cabe añadir que en los últimos años expertos internacionales en combustibles alternativos y reducción de la contaminación ambiental han estudiado el nivel de emisiones de la flota de autobuses de Dbus, otorgándole una valoración excelente gracias a su reducido nivel de emisiones de CO2 y partículas al ambiente.

Asimismo, en las instalaciones fijas de la Compañía se están implantando medidas como las revisiones para minimizar las fugas de la instalación neumática, estudio de mejoras en el sistema térmico de las instalaciones, etc.

3.2.2. Emisiones CO2 eq

La reducción del consumo ha permitido al mismo tiempo aumentar la reducción de emisiones de CO2 por kilómetro recorrido en los últimos años. Esta reducción ha experimentado un impulso considerable desde 2015, gracias a la incorporación de vehículos híbridos y eléctricos a la flota.

URTEKO TOKIKO EMISIOAK ETA CO2 EMISIOAK, (FLOTAK) EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZEKO

EMISIONES LOCALES Y CO2 ANUALES POR KILÓMETRO RECORRIDO (POR LA FLOTA)



Flotaren eraginkortasunaren ondorioz gasolioaren kontsumoak behera egiten jarraitzen duen heinean, berotegi efektuko gasen (CO2) emisioak ere murriztu egiten dira. Azken hiru urteetan joera hori ez da mantendu ibilgailu berriak sartzea atzeratu egin delako, baina autobus elektrikoak modu masiboan sartzeak emisiorik gabeko flota baterako trantsizioa azkartuko duela espero da.

En la misma medida que el consumo de gasoil sigue reduciéndose por la eficiencia de la flota, las emisiones de gases efecto invernadero (CO2) también disminuyen. En los tres últimos años esta tendencia no se ha mantenido debido al retraso en la incorporación de nuevos vehículos, si bien se espera que la incorporación masiva de autobuses eléctricos acelere la transición a una flota libre de emisiones.

TOKIKO KUTSATZAILEEN EMISIOAK:

Horrez gain, ibilitako kilometro bakoitzeko **gas kutsatzaileen emisioak** apur bat **murrizten jarraitzea lortu da,** grafiko honetan ikus daitekeen moduan:

EMISIONES DE CONTAMINANTES LOCALES:

Por otra parte, **se ha conseguido seguir reduciendo** ligeramente **las emisiones de gases contaminantes** por kilómetro recorrido tal y como se puede apreciar en el siguiente gráfico:



3.3. Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa

3.3.1. Hondakinak prebenitu, birziklatu eta berriz erabiltzeko neurriak eta berreskuratzeko eta deuseztatzeko beste modu batzuk

DTK zerbitzu enpresa bat da, eta ez ditu merkatuan jartzen berrerabili edo berreskura daitezkeen ondasunak zein produktuak. Alabaina, hondakinak sortu sortzen ditu; bereziki, enpresak Donostian duen egoitzako tailerrean egiten diren autobusen mantentze lanetan.

3.1.3 atalean azaltzen den bezala, autobusen mantentze lanek sortutako hondakinen zati bat hondakin arriskutsuak dira.

Horrez gain, arriskutsuak EZ diren hondakinak ere sortzen dira. Hondakin horiek ez dute arriskugarritasun ezaugarri jakinik, eta, beraz,

3.3. Economía circular y prevención y gestión de residuos

3.3.1. Medidas de prevención, reciclaje, reutilización, otras formas de recuperación y eliminación de desechos

La CTSS es una empresa de servicios que no pone en el mercado bienes ni productos que puedan ser reutilizados o recuperados. Sin embargo, sí genera residuos producidos en su mayoría en las tareas de mantenimiento de autobuses en el taller que tiene la empresa en su sede en San Sebastián.

Como se explica en el apartado 3.1.3, parte de los residuos generados por la actividad de mantenimiento de los autobuses, corresponde a residuos peligrosos.

Por otra parte, también se generan residuos NO peligrosos, estos son aquellos que no presentan unas determinadas características

ezin dute osasunean edo ingurumenean kalte larririk eragin.

Era berean, hondakinak legeak ezartzen duenaren arabera erretiratzen dira beti, kudeatzaile baimenduen bitartez, egoki tratatzea bermatzeko eta, zenbait kasutan, hondakinak balio kateak berriro sartzeko. DTKn gure hondakin sorrera murrizten eta behar bezala bereizten saiatzen gara. Horretarako, ondo identifikatutako edukiontziak ditugu.

3.4. Baliabideen erabilera iraunkorra

3.4.1. Ur kontsumoa eta ur hornidura tokiko mugen arabera

Garbitegia eta dutxak dira DTKren ur kontsumoaren punturik garrantzitsuena. Kontsumitutako ur guztia udal saretik dator.

Ura, berez, udalaren saneamenduko sarera isurtzen da. Garbitegietatik datorren uraren kasuan, DTK-k kutsatutako lohiak bereizten dituen dekantazio eta iragazte sistema bat duelako baino ezin da egin hori. Lohi kutsatuak hondakin gisa tratatzen dira, eta gainerako ura, berriz, udal sarera isurtzen da.

2024an, ur kontsumoa 3.265 m3-koa izan da. 2023ko guztizko ur kontsumoa 3.250m3-koa izan zen.

de peligrosidad y que, por tanto, no puedan provocar graves daños a la salud o al medio ambiente.

Igualmente, en todos los casos los residuos son retirados conforme a la ley mediante gestores autorizados para garantizar su óptimo tratamiento y poder, en algunos casos, reintroducir los residuos en la cadena de valor. En la CTSS procuramos reducir nuestra generación de residuos y su correcta separación. Para ello disponemos de contenedores correctamente identificados.

3.4. Uso sostenible de los recursos

3.4.1. Consumo de agua y el suministro de agua de acuerdo con las limitaciones locales

El principal punto de consumo de agua de la CTSS es el lavadero y las duchas. Toda el agua consumida proviene de la red municipal.

El agua como tal se vierte a la red de saneamiento municipal. En el caso del agua proveniente de los lavaderos, sólo es posible porque la CTSS dispone de un sistema de decantación y filtrado que separa los lodos contaminados. Estos últimos son tratados como residuo mientras que el agua restante se incorpora a la red municipal.

En 2024 el consumo de agua ha sido de 3.265 m3. El consumo total de agua en 2023 fue de 3.250m3.

3.4.2. Lehengaien kontsumoa

DTK zerbitzu enpresa bat da, eta nahiz eta lehengairik ez kontsumitu, autobusen mantentze lan prebentibo eta zuzentzailerako ordezko pieza batzuk kontsumitzen ditu.

Ordezko pieza horien kontsumoaren balioa 1.450.095,83 euroko izan da 2024an, 2023an baino %1,34 gehiago, 2023an 1.430.897,87 euroko balioa izan zuen eta.

3.4.2. Consumo de materias primas

La CTSS es una empresa de servicios, y aunque no consume materias primas, sí consume algunos repuestos y piezas para el mantenimiento preventivo y correctivo de los autobuses.

El valor del consumo de dichos repuestos en 2024 ha sido de 1.450.095,83 euros, un 1,34% más que en 2023, con un consumo valorado en 1.430.897,87 euros.

3.4.3. Zuzeneko zein zeharkako energia kontsumoa

Gaur egun, energiaren **zuzeneko kontsumoari** buruzko datuak ditu DTK-k:

3.4.3. Consumo, directo e indirecto, de energía

Actualmente, la CTSS dispone de datos de **consumo directo** de energía:

ERABILERA / USO	**2023KO URTEKO KONTSUMOA kWh/ CONSUMO AÑO 2023 kWh**	**2024KO URTEKO KONTSUMOA kWh/ CONSUMO AÑO 2024 kWh**
Energiaren kontsumo osoa / Consumo total de energía	36.150.810	36.280.135
Gasolioaren kontsumo osoa / Consumo total de gasoil	35.111.086	34.995.180
Elektrizitatearen kontsumo osoa /Consumo total de electricidad	708.820	846.042
Gas naturalaren kontsumo osoa /Consumo total de gas natural	330.904	438.913

Gure langileek beren bizilekutik lantokira egiten dituzten joan-etorriekin lotutako zeharkako beste kontsumo batzuk ere badaude.

Existen otros consumos indirectos relacionados con los desplazamientos de nuestro personal entre su domicilio y el centro de trabajo.

3.4.4. Energia eraginkortasuna hobetzeko hartutako neurriak

Energia eraginkortasuna hobetzeko ekintzak aurreko ataletan zehaztu dira.

Hona hemen horien laburpena:

- ISO 50.001 sistemaren ziurtapenaren eta ezarpenaren auditoria.
- Autobus eraginkorragoak.
- Gidatze ikastaro eraginkorra.
- Hobekuntzak instalazioetako argiterian.

3.4.4. Medidas tomadas para mejorar la eficiencia energética

Las acciones de mejora de la eficiencia energética se han detallado en apartados anteriores.

Recogemos aquí un resumen de las mismas:

- Auditoría certificación e Implantación sistema ISO 50.001.
- Autobuses más eficientes.
- Cursos de conducción eficiente.
- Mejoras en el alumbrado instalaciones.

3.4.5. Energia berriztagarrien erabilera

2008an, 30 kW-eko potentziako panel fotovoltaikoak jarri zituen DTK-k instalazioetako teilatuan. Paneletan ekoizten den energia Donostiako sare nagusira bideratzen da. Horrek dakar gizarteak energia aurreztea, energia berriztagarrien bitartez sortutako energia delako. 2024an, eguzki plakek 26.883 kWh ekoitzi dituzte, eta 2023an, berriz, 37.441 kWh-koa izan zen lortutako datua. 2024an ekoizpena jaitsi egin da kotxetegietako azpiegitura elektrikoa berritzeko obren ondorioz, eguzki plakak aldi baterako desinstalatu behar izan direlako.

3.4.5. Uso de energías renovables

En 2008 la CTSS instaló paneles fotovoltaicos de 30KW de potencia en la azotea de las instalaciones. La energía que se produce de los paneles se vuelca a la red general de San Sebastián. Ello supone un ahorro de energía para la sociedad, por la generación de energía a través de energías renovables. En 2024, las placas solares han producido 26.883 kWh, mientras que en el 2023 el dato obtenido fue de 37.441 kWh. En 2024 la producción ha disminuido como consecuencia de las obras de renovación de la infraestructura eléctrica de las cocheras, ya que ha obligado a la desinstalación temporal de las placas solares.

Gainera, 2023az geroztik Dbusen kontsumitutako energia elektrikoaren %100 iturri %100 berriztagarrietatik dator.

Además, desde 2023 el 100% de la energía eléctrica consumida en Dbus procede de fuentes 100% renovables.

3.5. Klima aldaketa

3.5.1. Enpresaren jardueren ondorioz sortutako berotegi efektuko gas emisioen elementu garrantzitsuak.

Dbusen jarduerak berotegi efektuko gasak igortzen ditu, diesel ibilgailuen errekuntzaren ondorioz. DTK egoeraren jakitun da, eta horregatik, etengabe ari da lanean erregai eta ibilgailu ekologikoak erabiltzeko eta apurka-apurka ibilgailu hibridoak edo %100 elektrikoak eskuratzeko.

Gainera, jardueraren izaerak berak igorpenak murrizten ditu gizarte osoan, ibilgailu pribatuaren erabilerarekin lehiatzen baita. Horren harira, garraio publikoaren erabilera sustatzeko kanpainak egiten dira.

3.5. Cambio climático

3.5.1. Elementos importantes de las emisiones de gases de efecto invernadero generados como resultado de las actividades de la empresa.

La actividad de Dbus emite gases de efecto invernadero generados como resultado de la combustión en los vehículos diésel. La CTSS es consciente de esta situación, por lo que trabaja constantemente en la utilización de combustibles y vehículos ecológicos, y en la incorporación progresiva de vehículos híbridos o 100% eléctricos.

Además, la propia naturaleza de la actividad tiene un efecto de reducción de emisiones en el conjunto de la sociedad al competir con la utilización del vehículo privado. En este sentido se realizan campañas para fomentar el uso del transporte público.

3.5.2. Klima aldaketaren ondorioetara egokitzeko hartutako neurriak.

Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko hartutako neurrietako bat Kotxerak elektrifikatzeko obra izango da. Gaur egun, Kotxeretako eraikin nagusiko azpiegitura elektrikoa egokituta dago laster sartuko diren ibilgailu elektrikoak hartzeko. Era berean, Dbus

3.5.2. Medidas adoptadas para adaptarse a las consecuencias del cambio climático.

Una de las medidas adoptadas para adaptarse a las consecuencias del cambio climático será la obra de la electrificación de Cocheras. Actualmente la infraestructura eléctrica del edificio principal de Cocheras está ya acondicionada para acoger los vehículos eléctricos que se incorporen en un futuro

kanpoko zabalgunean plazak elektrifikatzeko proiektuan ari da lanean.

Bestalde, flota berritzeak eta ibilgailu hibrido-elektrikoak erosteak, bai eta DTK-k eta Donostiako Udalak garraio publikoaren erabilera sustatzeko bultzatutako kanpaina guztiek ere, asko laguntzen dute ingurumena zaintzen.

inmediato. Asimismo, Dbus está trabajando en el proyecto para la electrificación de las plazas en la explanada exterior.

Asimismo, la renovación de la flota y adquisición de vehículos híbrido-eléctricos, así como todas las campañas impulsadas por la CTSS y el Ayuntamiento de San Sebastián para promover el uso del transporte público, contribuyen de manera considerable en el cuidado del medio ambiente.

3.5.3. Epe ertain eta luzera borondatez ezarritako murrizketa helburuak, berotegi efektuko gasen igorpenak murrizteko, eta horretarako ezarritako bitartekoak.

Energia efizientzia kudeatzeko sistemaren esparruan, jarraian azaltzen dira 2024an gauzatutako ekintzak eta 2025erako aurreikusitakoak.

3.5.3. Metas de reducción establecidas voluntariamente a medio y largo plazo para reducir las emisiones de gases de efecto invernadero y los medios implementados para tal fin.

En el marco del Sistema de gestión de eficiencia energética, a continuación, se muestran las acciones ejecutadas durante 2024 y las previstas para 2025.

2024KO EKINTZA PLANA - GAUZATUA:

PLAN DE ACCIONES 2024 - EJECUTADO:

HELBURUAK/ OBJETIVOS	**EKINTZEN AURREIKUSPENA / PREVISIÓN DE ACCIONES**
Efizientziaz gidatzea / Conducción eficiente	EKObus efizientziaz gidatzen laguntzeko sistematik lortutako informazioaren azterketa/ Análisis de la información obtenida del sistema de ayuda en la conducción eficiente EKObus
	Efizientziaz gidatzen ikasteko ikastaroa / Realizar cursos de conducción eficiente

Flotaren elektrifikazioa / Electrificación de la flota	Dbusen flotak elektromugikortasunaren alorrean etorkizunean izango dituen beharrei erantzuteko Kotxetegien eraikinean instalatzen ari den azpiegitura elektrikoaren obra bukatu da. Ibilgailuen karga elektrikoko sistemak/ Finalización de la obra de la infraestructura eléctrica en el edificio de Cocheras para las futuras necesidades de electromovilidad de la flota de Dbus. Sistemas carga eléctrica vehículos
	Hogei autobus elektriko sartzea flotan: 20 autobus elektriko (12 metroko 14 eta 18 metroko 6)./ Incorporación de veinte autobuses eléctricos: 20 autobuses eléctricos (14 de 12 metros y 6 de 18 metros)
	Ibilgailu elektrikoen inguruko formazioa (ekipamendu teknologikoa, aginteak, efizientziaz gidatzeko teknikak, tentsio handiaz sentsibilizatzea, mantentze lanak, etab.)/ Formación en vehículos eléctricos (equipamiento tecnológico, mandos, técnicas de conducción eficiente, sensibilización alto voltaje, mantenimiento, etc.)
Kargen kudeaketa energetiko integrala / Gestión energética integral de cargas	Kargen software integrala. Esleituta. Garapen fase aurreratuan. / Software Integral de cargas. Adjudicado. En fase avanzada de desarrollo.

2025EKO EKINTZA PLANA: **PLAN DE ACCIONES 2025:**

HELBURUAK / OBJETIVOS	EKINTZEN AURREIKUSPENA / PREVISIÓN DE ACCIONES
Efizientziaz gidatzea / Conducción eficiente	EKObus efizientziaz gidatzen laguntzeko sistematik lortutako informazioaren azterketa /Análisis de la información obtenida del sistema de ayuda en la conducción eficiente EKObus
	Efizientziaz gidatzen ikasteko ikastaroa / Realizar cursos de conducción eficiente
Flotaren elektrifikazioa / Electrificación de la flota	Dbusen flotak elektromugikortasunaren alorrean etorkizunean izango dituen beharrei erantzuteko Kotxetegien kanpoko zabaltzan instalatuko den azpiegitura elektrikoaren obra hasiko da. Ibilgailuen karga elektrikoko sistemak/ Inicio de la obra de la infraestructura eléctrica de Cocheras en la explanada exterior para las futuras necesidades de electromovilidad de la flota de Dbus. Sistemas carga eléctrica vehículos
	Autobus elektrikoak sartzea flotan: 1. Fasea: 12 metroko 10 autobus elektriko eroste 2. Fasea: 12 metroko 14 autobus elektriko 3. Fasea: 18 metroko 9 autobus elektriko 17-BRT lineari zerbitzua emateko / Incorporación de autobuses eléctricos: Fase 1: 10 autobuses eléctricos de 12 m Fase 2: 14 autobuses eléctricos de 12 metros Fase 3: 9 autobuses eléctricos de 18 metros para dar servicio a la línea 17-BRT

HELBURUAK / OBJETIVOS	EKINTZEN AURREIKUSPENA / PREVISIÓN DE ACCIONES
	Ibilgailu elektrikoen inguruko formazioa (ekipamendu teknologikoa, aginteak, efizientziaz gidatzeko teknikak, tentsio handiaz sentsibilizatzea, mantentze lanak, etab.)/ Formación en vehículos eléctricos (equipamiento tecnológico, mandos, técnicas de conducción eficiente, sensibilización alto voltaje, mantenimiento, etc.)
Kargen kudeaketa energetiko integrala / Gestión energética integral de cargas	Kargen software integrala. Azken fasea: karga probak egitea, monitorizazioa eta baliozkotzea. / Software Integral de cargas. Fase final: realización de pruebas de carga, monitorización y validación.

3.6. Biodibertsitatearen babesa

DTK-k Donostiako hiri ingurunean egiten du lan, eta, beraz, ez du eragin handirik biodibertsitatean.

2005ean, DTK-k bere irudi korporatiboa eguneratu zuen, gaur egun bere jardueraren oinarri diren hainbat elementu gehituz: ingurumenarekiko errespetua eta donostiarrentzako zerbitzuaren kalitatea.

Irudi berriaren diseinuan urdina eta berdea ezarri ziren DTKren ezaugarri bereizgarriaren koloretzat: urdina, Donostiako hiriari lotutako kolore gisa, eta berdea, DTK-k jarduera leku duen ingurune naturala babesteko eta hobetzeko egiten duen ahaleginaren adierazle gisa.

3.6. Protección de la biodiversidad

La CTSS desarrolla su actividad en el entorno urbano de San Sebastián por lo que no tiene un gran impacto sobre la biodiversidad.

En 2005 la CTSS actualizó su imagen corporativa incorporando varios elementos que hoy en día son la base de su actividad: el respeto al medio ambiente y la calidad del servicio a los y las donostiarras.

El diseño de la nueva imagen estableció el color azul y el color verde como colores identificativos de su identidad: el azul como color vinculado a la ciudad de San Sebastián y el verde como color que pone de manifiesto el esfuerzo que se realiza desde la CTSS para la protección y mejora del entorno natural en el que desempeña su trabajo.

Urte berean, DTK-k Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean jardun zuen hegoaldeko zuhaitz igela Konpainiaren irudiaren zati izatea ezartzeko. Desagertzeko arriskuan dagoen animalia da, baina Donostiako alde batzuetan oraindik ere existitzen da. Europan dauden anfibiorik txikienetako bat da, espezie horretako animalia helduak gehienez 5-6 cm-koak dira eta. Gorputzaren kolorea berde argi eta distiratsua da, nahiz eta kolorearen tonua ez den berbera zonalde guztietan. Batzuek puntu txiki beltz batzuk dituzte bizkarraldean.

El mismo año la CTSS colaboró con la Sociedad de Ciencias Aranzadi para establecer la ranita meridional como parte de la imagen de la Compañía. Se trata de un ejemplar en peligro de extinción y que aún existe en algunas zonas de San Sebastián. Es uno de los anfibios más pequeños de Europa, ya que los adultos apenas superan los 5- 6 centímetros de longitud. El color de su cuerpo es verde claro y brillante, aunque la tonalidad varía según las zonas. Algunos ejemplares poseen puntitos negros en el dorso.

Igela, halaber, Donostiako eskola umeek ondo ezagutzen duten maskota bat da, bizitzeko eta mugitzeko ohitura onak txikienei irakasteko erabiltzen baita, DTKren instalazioetara egiten dituzten bisitetan. Hegoaldeko zuhaitz igela adibide didaktiko ona da, bere existentzia kolokan baitago; izan ere, kutsaduraren eta hiritarren eta enpresen praktika txarren ondorioen adibide garbia da.

La rana es asimismo una mascota reconocible por parte de los escolares de San Sebastián, ya que se utiliza para inculcar los buenos hábitos de vida y de movilidad entre los/as más pequeños/as en sus visitas a las instalaciones de la CTSS. La rana meridional es un buen ejemplo didáctico debido a su precaria existencia, un claro ejemplo de las consecuencias de la contaminación y de las malas prácticas ciudadanas y empresariales del fomento del transporte sostenible.

4. HARREMANAK SOZIETATEAN

4.1. Garapen iraunkorrarekiko konpromisoak

4.1.1. Sozietatearen jarduerak enpleguan eta garapen lokalean duen inpaktua

DTK-k Donostiako hiri ingurunean garatzen du bere jarduera, beraz, enplegua sortzen du toki mailan. Era berean, DTK-ko plantilla osatzen duten pertsona guztiek espainiar nazionalitatea dute, eta gehienak toki eremuan jaio eta bizi dira.

Ekitaldi honetan hornitzaileen %65,66 EAEn finkatutako hornitzaileak izan dira.

4.1.2. Sozietatearen jarduerak tokiko eta lurraldeko biztanleengan duen inpaktua

DTK-k **interoperatibilitatearen** edo tarifa sistema integralaren alde egiten du (GGLAk kudeatutako tarifa sistema), zeinarekin egun dauden hiru garraio txartelak (lurralde bakoitzeko bat) berdin-berdin erabili

4. RELACIONES EN LA SOCIEDAD

4.1. Compromisos con el desarrollo sostenible

4.1.1. Impacto de la actividad de la sociedad en el empleo y desarrollo local

La CTSS desarrolla su actividad en el entorno urbano de San Sebastián, por lo que genera empleo a nivel local. Asimismo, todas las personas que componen la plantilla de la CTSS son de nacionalidad española, y la mayoría de ellas nacidas y con residencia en el ámbito local.

En este ejercicio el 65,66% de los proveedores han sido proveedores afincados en el País Vasco.

4.1.2. Impacto de la actividad de la sociedad en las poblaciones locales y en el territorio

La CTSS apuesta por la **interoperabilidad** o sistema tarifario integral (gestionado por la ATTG), que permiten el uso indistinto de las tres tarjetas de transporte existentes (una por territorio) en toda la red de transporte público

daitezkeen garraio publikoko euskal sare osoan, EAEn bidaiatzeko orduan oztopoak murrizteko.

Deskontu progresiboak daude erabileragatik txartel pertsonaletan eta besterenezinetan, eta kolektibo berezientzako hobariak garraiobide guztietan. Era berean, 2021eko uztailaren 5etik **doakoak dira Dbuseko autobusen eta** Donostiako udalerrian zerbitzua ematen duten eta Mugi sistemaren parte diren garraio publikoko **gainerako operadoreen** arteko transbordoak. Ordura arte, transbordoek hobaria zuten, tarifen integrazioaren operadoreen artean egindakoak ibilbide bakartzat hartuta. Transbordoan ordainketa egin behar ez izateak probintziako hiriburura iristea eta lurraldearen barruko mugikortasuna errazten ditu, eta ibilgailu pribatua garraiobide gisa gutxiago erabiltzen laguntzen du.

Tarifa sistema integrala gero eta gehiago egiten den eskaria da, eta modu esanguratsuan errazten du tokiko biztanleak lurraldearen barruan mugitzea. **BAT eta BARIK Arabako eta Bizkaiko txartel multimodalen erabilera** %25,37 handitu da 2024an, 2023koaren aldean, EAEko probintzien arteko mugikortasuna malgutu izanari esker. 2024an, BAT eta BARIK txartelekin ordaindutako 222.473 bidaia zenbatu dira; aurreko urtean, berriz, horrela ordaindutako 177.451 bidaia zenbatu ziren.

vasco, reduciendo así las barreras a la hora de viajar en la CAV.

Existen descuentos progresivos en tarjetas personales e intransferibles por uso y bonificaciones para colectivos especiales en todos los modos de transporte. Asimismo, desde el 5 de julio de 2021 **los transbordos entre los autobuses de Dbus y el resto de los operadores** de transporte público que prestan servicio dentro del término municipal de San Sebastián y forman parte del sistema Mugi **son gratuitos.** Hasta ese momento los transbordos eran bonificados, contando como un único trayecto los realizados entre distintos operadores de la integración tarifaria. La eliminación del pago en el transbordo facilita el acceso a la capital de la provincia, la movilidad dentro del territorio, favoreciendo la reducción del uso del vehículo privado como modo de transporte.

El sistema tarifario integral constituye una demanda creciente que facilita de manera significativa el desplazamiento de las poblaciones locales dentro del territorio. El **uso de las tarjetas BAT y BARIK, tarjetas multimodales de Araba y Bizkaia,** se ha visto incrementado en un 25,37 % en 2024 frente al uso realizado en 2023, gracias a la flexibilización de la movilidad entre provincias de la CAV. En 2024 se han contabilizado 222.473 viajes con tarjetas BAT y BARIK, mientras que en el año anterior se contabilizaron 177.451.

	2023	2024
BARIK	143.751	182.816
BAT	33.700	39.657
TOTAL	177.451	222.473

4.1.3. Tokiko komunitateetako eragileekin izandako harremanak eta haiekiko elkarrizketarako modalitateak

DTK-k zuzeneko eta etengabeko harremana dauka **Donostiako Udalarekin**, harena baita 1981az geroztik konpainiaren kapital sozial osoa.

DTKren jarduera Donostiako Udalak landutako hiriko Plan Estrategikoaren zatia da, eta mugikortasunaren eremuan berarekin noizean behin edo jarraian harremanetan dauden udaleko hainbat sailekin elkarlanean aritzen da etengabe. Elkarrizketa modua elkarlanezkoa eta eraikitzailea da, dela bileretan, dela lan foroetan, dela telematikoki.

DTK-k harreman estua dauka, halaber, **Gipuzkoako Garraioko Lurralde Agintaritzarekin** (GGLA), zeina Tarifa Sistema Integrala kudeatzeaz arduratzen baita. Hauek dira sistema horri atxikitako operadoreak: Hiriarteko Garraioa (Lurraldebus) + Tren garraioa (Renfe eta Euskotren) + Hiri garraioa (Donostia eta beste udalerri batzuk).

4.1.3. Relaciones mantenidas con los actores de las comunidades locales y modalidades de diálogo con estos

La CTSS mantiene relación directa y constante con el **Ayuntamiento de San Sebastián**, a quien corresponde íntegramente el capital social desde 1981.

La actividad de la CTSS forma parte del Plan Estratégico de ciudad elaborado por el Ayuntamiento de San Sebastián, y colabora y trabaja constantemente con diferentes departamentos de dicho Ayuntamiento que tengan relación, puntual o continua, en el ámbito de la movilidad. El modo de diálogo es colaborativo y constructivo, ya sea en reuniones, foros de trabajo o telemáticamente.

La CTSS mantiene una relación estrecha también con la **Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa** (ATTG), encargada de gestionar el Sistema Tarifario Integral. Los operadores adheridos a dicho sistema son: Transporte Interurbano (Lurraldebus) + Transporte ferroviario (Renfe y Euskotren) + Transporte urbano (San Sebastián y otros municipios).

Gipuzkoako Garraioko Lurralde Agintaritzaren funtzionamenduan parte aktiboa da DTK.

Gainera, DTK-K lankidetzazko elkarrizketa bat dauka **beste erakunde publiko batzuekin**, beti zerbitzu hobea eta kalitatekoa eskaini ahal izateko eta ahalik eta estaldurarik gehien eta ingurumenean gero eta inpaktu gutxien daukan zerbitzu baten bidez erabiltzaileen itxaropenak gainditzeko.

La CTSS forma parte activa en el funcionamiento de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

Además, la CTSS mantiene un diálogo colaborativo con **otras instituciones públicas** con el objetivo siempre de poder mejorar y ofrecer un servicio de calidad, que supere las expectativas de las personas usuarias, que alcance la mayor cobertura posible y que tenga cada vez un menor impacto medioambiental.

4.1.4. Elkarketa eta babesletza ekintzak

Urtero bezala, DTK-k hainbat kausa sozialarekin egin du bat 2024an, autobusetan kausa sozial horien ikur adierazgarria erakutsita, hainbat jarduera babesten zituela erakusteko.

Hona hemen 2024an egindako lankidetzak:

- Hiesaren aurkako Borrokaren Munduko Eguna.
- Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna
- Trafiko Istripuetako Biktimak Gogoratzeko Munduko Eguna. Smith-Magenis Sindromearen Nazioareko eguna.
- Bularreko Minbiziaren aurkako Munduko Eguna.
- Gaixotasun Erreumatikoen Nazioarteko Eguna
- Ikusmenaren Munduko Eguna
- Entzutearen Eguna.
- Erretinaren Munduko Eguna.

4.1.4. Acciones de asociación y patrocinio

La CTSS, como cada año, a lo largo de 2024 también se ha sumado a diferentes causas sociales, luciendo los autobuses el distintivo correspondiente, como muestra de apoyo a diversas actividades.

A continuación, se detallan las colaboraciones llevadas a cabo en 2024:

- Día Mundial Día Mundial de la Lucha contra el Sida.
- Día Internacional para la Eliminación de Violencia contra las Mujeres.
- Dbus se suma al Día Mundial en Recuerdo de las Víctimas de la Violencia Vial Internacional del Síndrome de Smith-Magenis.
- Día Mundial contra el Cáncer de Mama.
- Día Internacional de las Enfermedades Reumáticas
- Día Mundial de la Visión
- Día de la Escucha.
- Día Mundial de la Retina.

- Dravet Sindromeaz Kontzientziatzeko Nazioarteko Eguna
- Haurren Aurkako Tratu Txarren Nazioarteko Eguna.
- Autismoaz Kontzientziatzeko Munduko Eguna
- Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna
- Pobrezia Errotik Ezabatzeko Nazioarteko Eguna
- Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna
- Linfedemaren Nazioarteko Eguna
- Emakumeen Nazioarteko Eguna
- Gaixotasun Arraroen Munduko Eguna

- Día Internacional por la Concienciación del Síndrome de Dravet.
- Día Internacional Contra el Maltrato Infantil.
- Día Mundial de la Concienciación sobre el Autismo.
- Día Internacional del Voluntariado.
- Día Internacional para la Erradicación de la Pobreza.
- Día Internacional del Pueblo Gitano.
- Día Internacional del Linfedema.
- Día Internacional de las Mujeres.
- Día Mundial de las Enfermedades Raras.

Era berean, azpimarragarria da urtero, abenduan, Dbusek "Argibusa" jarduera egiten duela. Konpainiaren autobus bat erabiliz adineko pertsonei Donostiako Gabon giroa eta dekorazioa hurbiltzeko egiten den jarduera da. Donostia lagunkoia planaren barruko ekimena izan zen, hau da, hiria lagunkoiagoa izaten laguntzeko eta adinekoen bizi kalitatea hobetzeko asmoarekin Donostiako Udalak bultzatutako planaren zatia.

Asimismo, cabe destacar que cada año, en diciembre, Dbus realiza la actividad "Argibusa", que consiste en acercar la Navidad y la decoración donostiarra a las personas mayores desde un autobús de la Compañía. La iniciativa se enmarcó en Donostia Lagunkoia y fue un plan promovido por el Ayuntamiento de San Sebastián para mejorar la amigabilidad de la ciudad y la calidad de vida de las personas mayores.

Oraingoan, Txara 2 egoitzarekin elkarlanean antolatu da jarduera, eta zentro horretan bizi ziren adineko 35 lagunek aukera izan dute autobusean irteera bat egiteko eta **hirian dagoen gabon giroa ikusteko.**

En esta ocasión, la actividad se organiza en colaboración con la Residencia Txara 2 y 35 personas mayores que viven en este centro han podido disfrutar de la salida en autobús para ver el **ambiente navideño de la ciudad.**

Jarduera horri esker, 65 eta 98 urte bitarteko adinekoek espazio esanguratsuetatik ibili ahal izan zuten, eta pertsona askorentzat ohikoa

Esta actividad ha permitido a personas mayores de entre 65 y 98 años recorrer espacios significativos y acercarse a una actividad

den jarduera batera hurbildu. Parte hartzaileak zentroko arduradunekin eta senideekin batera egon ziren, esperientzia partekatu ahal izateko.

DTK, gainera, ATUC Espainiako garraio operadoreen elkarte nagusiko kide da, eta elkarte hori osatzen duten batzordeetan parte hartzen du, sektoreko profesionalekin esperientziak eta ezagutza trukatzeko:

- Batzorde ekonomiko eta finantzarioa.
- Teknologia berrietako, Marketineko eta Kalitateko Batzorde
- Pertsonen Kudeaketa eta Garapeneko Batzordea.
- Komunikazioko eta RR.II.-ko Batzordea
- Zerbitzu gisako Mugikortasunaren (MaaS) Zerbitzu
- Autobusen Plangintza eta Ustiapeneko Batzordea
- Bizikleta Publikoaren Batzordea

Toki mailan, DTK etengabe funtzionatzen duten hainbat lantaldetan dago:

- Donostiako hiriko puntu kritikoen jarraipena egiteko eta puntu kritiko horien mapa lantzeko lantaldea
- Donostia Hiri Lagunkoia plan inplementatzeko Batzorde Teknikoa.
- Donostiako Udaleko Kontseilu Soziala.

habitual para muchas personas. Los y las participantes han estado acompañados de personas responsables del centro y de familiares con objetivo de poder compartir la experiencia.

Además, la CTSS forma parte de ATUC, la principal asociación de operadores de transporte de España, y colabora en las distintas comisiones que la componen, con el objetivo de intercambiar experiencias y conocimiento con profesionales del sector:

- Comisión Económica-Financiera.
- Comisión de Nuevas Tecnologías, Marketing y Calidad
- Comisión de Gestión y Desarrollo de Personas.
- Comisión de Comunicación y RR.II.
- Comisión de Movilidad como Servicio (MaaS)
- Comisión de Planificación y Explotación de autobuses
- Comisión de Bicicleta Pública

ADMINISTRARIAK ETA TEKNIKARIAK ADMINISTRATIVOS/AS Y TECNICOS/AS	1.193,35	0,00	0,00%	66,30	5,56%
IKUSKATZAILEAK INSPECTORES	398,02	0,00	0,00%	171,90	43,19%
GIDARI KOBRATZAILEAK CONDUCTORES/AS-PERCEPTORES/AS	14.824,78	413,85	2,79%	1.948,93	13,15%
TAILERRAK TALLERES	0,00	0,00	0,00%	0,00	0,00%
ZERBITZU OSAGARRIAK SERVICIOS AUXILIARES	455,28	0,00	0,00%	0,00	0,00%
GARBIKETA LIMPIEZA	686,85	0,00	0,00%	127,49	18,56%
	17.558,28	413,85	2,36%	2.314,62	13,18%

GIZONAK HOMBRES **2024**	KONTRATATUTAKO EGUNAK DIAS CONTRATADOS	ISTRIPUA ACCIDENTE DIAS	 %	GAIXOTASUNA ENFERMEDAD DIAS	 %
ADMINISTRARIAK ETA TEKNIKARIAK ADMINISTRATIVOS/AS Y TECNICOS/AS	2.753,83	0,00	0,00%	0,61	0,02%
IKUSKATZAILEAK INSPECTORES	3.944,83	0,00	0,00%	91,58	2,32%
GIDARI KOBRATZAILEAK CONDUCTORES/AS-PERCEPTORES/AS	97.751,07	450,15	0,46%	12.071,31	12,35%
TAILERRAK TALLERES	8.716,94	12,54	0,14%	729,57	8,37%
ZERBITZU OSAGARRIAK SERVICIOS AUXILIARES	796,74	0,00	0,00%	8,70	1,09%
GARBIKETA LIMPIEZA	5.199,21	9,66	0,19%	872,48	16,78%
	119.162,62	472,35	0,40%	13.774,25	11,56%

2024an, Istripu kopuruak handiagoak izan dira, ez ordea gaixotasun kopuruak, kasu honetan behera egin baitu 2023koekin alderatuta.

En 2024 la cifra de días de baja por accidente ha sido superior al registrado en 2023. Sin embargo, los días por enfermedad se han reducido con respecto a 2023.

2023	ISTRIPU EGUNAK DÍAS ACCIDENTE	GAIXOTASUN EGUNAK DÍAS ENFERMEDAD
ADMINISTRARIAK ETA TEKNIKARIAK ADMINISTRATIVOS/AS Y TÉCNICOS/AS	0,00	176,37
IKUSKATZAILEAK INSPECTORES/AS	0,00	155,58
GIDARI KOBRATZAILEAK CONDUCTORES/AS-PERCEPTORES/AS	464,78	14.974,38
TAILERRAK TALLERES	12,54	1.093,42
ZERBITZU OSAGARRIAK SERVICIOS AUXILIARES	0,00	0,00
GARBIKETA LIMPIEZA	0,00	700,57
	477,32	17.100,32

2024	ISTRIPU EGUNAK DÍAS ACCIDENTE	GAIXOTASUN EGUNAK DÍAS ENFERMEDAD
ADMINISTRARIAK ETA TEKNIKARIAK ADMINISTRATIVOS/AS Y TÉCNICOS/AS	0,00	66,91
IKUSKATZAILEAK INSPECTORES/AS	0,00	263,48
GIDARI KOBRATZAILEAK CONDUCTORES/AS-PERCEPTORES/AS	864,00	14.020,24
TAILERRAK TALLERES	12,54	729,57
ZERBITZU OSAGARRIAK SERVICIOS AUXILIARES	0,00	8,70
GARBIKETA LIMPIEZA	9,66	999,97
	886,20	16.088,87

5.3.3. Maiztasun tasa, larritasun tasa eta gaixotasun profesionalak sexuen arabera

Lan istripuetan eta gaixotasun profesionalen sexuen araberako maiztasun eta larritasun tasei dagokienez, indizea sektorekoa baino txikiagoa da:

5.3.3. Tasa de frecuencia, tasa de gravedad y enfermedades profesionales por sexo

En cuanto a la tasa de frecuencia y de gravedad por sexo de los accidentes de trabajo, y las enfermedades profesionales por sexo, el índice está por debajo del índice del sector.

2023ko tasak

Tasas de 2023

	Tasa de frecuencia Dbus	Tasa frecuencia actividad	Tasa de gravedad Dbus	Tasa gravedad actividad	EP
Hombres	21,34		0,66		0
Mujeres	17,26		0,06		0
Total	15,34	23,60	0,58	0,91	0

2024ko tasak

Tasas de 2024

	Tasa de frecuencia Dbus	Tasa frecuencia actividad	Tasa de gravedad Dbus	Tasa gravedad actividad	EP
Hombres	20,87		0,37		0
Mujeres	66,39		1,22		0
Total	13,90	22,80	0,48	0,89	0

5.4. Harreman sozialak

5.4.1. Elkarrizketa sozialaren antolaketa: langileak informatzeko eta haiekin negoziatzeko prozedurak

Enpresa Batzorde batek ordezkatzen ditu Konpainiako langileak, eta Enpresa Batzorde hori lau sindikatu ataletako 17 lagunek osatuta dago.

5.4. Relaciones sociales

5.4.1. Organización diálogo social: procedimientos para informar personal y negociar con ellos

Los trabajadores/as de la Compañía están representados/as por un comité de empresa formado por 17 personas que pertenecen a cuatro secciones sindicales diferentes.

Enpresa Batzordea aldian-aldian enpresako zuzendaritzarekin elkartzen da, langileak kezkatzen dituzten gaiei buruz hitz egiteko.

El Comité de Empresa se reúne periódicamente con el equipo directivo de la empresa para tratar cuestiones que preocupan a los/as trabajadores/as.

Informatzeko dauden prozedurei dagokienez, eta komunikazioa hobetzeko helburuarekin, barne komunikazioa hobetzeko plan integral bat garatu du DTK-k, horrela zirkularrak eta nominak bertsio digitalean bidaltzeko eta hondakinak murrizteko.

En relación a los procedimientos existentes para informar, y con el objetivo de mejorar la comunicación, la CTSS ha desarrollado un plan integral de mejora de la comunicación interna y así reducir el uso de residuos a través del envío de circulares y la nómina en versión digital.

2024an, barruko buletina argitaratzen jarraitu da. Buletinaren helburua da DTK-ko plantilla osoari Konpainiaren azken nobedadeen berri ematea.

En 2024 se ha seguido editando el boletín interno, cuyo objetivo es ofrecer a toda la plantilla de la CTSS un resumen de las últimas novedades de la Compañía.

Gainera, beste ekintza batzuk egin dira langileen parte hartzea eta motibazioa areagotzeko, esaterako hauek:

- DTKren enpresa hornitzaileekiko negoziazioa langileei deskontu politikak ezartzeko.
- Langileen etengabeko ebaluazioa.
- Langileen zirkularrak argitaratzea eta zabaltzea.
- Berdintasun Planean jasotako hainbat jarduera.
- Haurrentzako marrazki lehiaketa, langileen seme-alabentzakoa.

Además, se han llevado a cabo otras acciones para fomentar la participación y la motivación de los trabajadores y las trabajadoras, tales como:

- Negociación con empresas proveedoras de la CTSS de políticas de descuentos para la plantilla.
- Evaluación continua del personal.
- Edición y divulgación de circulares al personal.
- Diversas actividades recogidas en el Plan de Igualdad.
- Concurso infantil de dibujo dirigido a los/as hijos/as del personal.

Enplegatuaren atari bat ere badago, zeinera langile guztiek duten sarbidea. Bertan kontsultatu ditzakete Konpainiaren

Asimismo, existe un **portal del empleado/a,** al que tiene acceso toda la plantilla, y en el que se pueden consultar todas las noticias y

jarduerarekin lotura duten albisteak eta jarduera guztiak, baita adierazle nagusien bilakaera (metatutako bidaien bilakaera, hileko kontsumoaren bilakaera, puntualtasunaren hileko bilakaera eta erruarekin gertatutako istripu kopurua) eta gidarien ordutegien planifikazioa ere.

Azkenik, azpimarratzekoa da, halaber, enplegatuaren atarian dagoen iradokizunetarako postontzia; Pertsonen Zuzendaritzarekin zuzenean komunikatzeko kanal bat da, eta horren bitartez DTK-ko langileen iradokizunak edo kezkak helarazi ahal zaizkio Pertsonen Zuzendaritzari.

5.4.2. Hitzarmen kolektiboak estaltzen dituen enplegatuen portzentajea herrialdeka

Plantillaren %100 DTKren hitzarmen kolektiboaren menpe dago, eta hitzarmen horrek Konpainiako langileen eskubideak eta obligazioak definitzen ditu. DTK-ko langileek sozietatearen egoitzan egiten dute lan, Euskadin.

5.4.3. Hitzarmen kolektiboen balantzea, bereziki laneko osasunaren eta segurtasunaren eremuan

2019aren amaieran, akordio bat lortu zen, eta, horri esker, 2019-2022 aldirako DTKren hitzarmen kolektibo berria sinatu ahal izan zen. Bi akordio handi hauek dira Hitzarmenaren ardatza: alde batetik, erretiro partzialerako plan bat definitzeko akordio bat egin zen 2019-

actividades relacionadas con la actividad de la Compañía, así como la evolución de los principales indicadores (evolución de viajes acumulados, evolución consumo mensual, evolución mensual de la puntualidad y número de siniestros con culpa), y la planificación de horarios de los /as conductores/as.

Por último, cabe destacar también el buzón de sugerencias disponible en el portal del empleado/a; se trata de un canal de comunicación directo con la dirección de personal, y a través del cual se pueden trasladar las sugerencias o preocupaciones de los/as trabajadores/as de la Compañía.

5.4.2. Porcentaje de empleados/as cubiertos/as por el convenio colectivo por país

El 100% de la plantilla está sujeta al convenio colectivo de CTSS, que define los derechos y obligaciones del personal de la Compañía. El personal de la CTSS trabaja en la sede de la sociedad en Euskadi.

5.4.3. Balance de los convenios colectivos, particularmente en el campo de la salud y la seguridad en el trabajo

A finales de 2019 se alcanzó un acuerdo, el cual permitió la firma del nuevo convenio colectivo de la CTSS para el período 2019-2022.

El . Convenio pivota sobre dos grandes acuerdos: por un lado, se alcanzó un acuerdo para definir el plan de jubilación parcial para el

2022 aldirako, eta, bestetik, DTK-ko langileen lan baldintzetan hobekuntza garrantzitsuak hitzartu ziren. Zentzu horretan, Hitzarmen berrian, aurrekoan bezala, ahalegin berezia egin da lana langileen bizitza pertsonalarekin hobeto uztartzeko eta lan baldintzak hobetzeko egon daitezkeen bide guztiak aztertzeko. Adostutako hobekuntza horien artean hauek nabarmendu daitezke:

- Metatutako orduengatik Enpresak emango dituen atsedenen kopurua handitu da.
- Norbere gauzetarako baimenak zabaldu dira.
- Azterketa medikoak eta laneko arropak jasotzea arautu dira.

Hitzarmenaren funtsezko elementu hauekin, DTK-k eta bere langileek funtzionamendurako esparru egonkorra eduki nahi dute, funtsezko aktibotzat jotzen baita, batez ere kontuan izanda enpresa une historikoan dagoela, laster hirian mugikortasun sistema berriak ezarriko direlako.

Gaur egun DTKren Hitzarmen Kolektibo berria egiteko negoziazio fasean dago.

periodo 2019-2022 y, por otro lado, se pactaron importantes mejoras de las condiciones de trabajo del personal de la CTSS. En este sentido, el nuevo Convenio, al igual que el anterior, hace un esfuerzo especial en la mejora de la compatibilidad de la vida personal de los/as trabajadores/as, así como en analizar todas las posibles vías de mejora de las condiciones de trabajo del personal. Entre dichas mejoras acordadas destacan las siguientes:

- Aumenta el número de descansos que concederá la Empresa por horas acumuladas.
- Ampliación de los permisos por asuntos propios.
- Regulación de los reconocimientos médicos y la recogida de vestuario.

Con estos elementos fundamentales del Convenio, la CTSS y su personal quieren dotarse de un marco estable de funcionamiento, que se considera un activo fundamental, sobre todo teniendo en cuenta el importante momento histórico en el que se encuentra la empresa, derivado de la próxima implantación en la ciudad de nuevos sistemas de movilidad.

Actualmente la CTSS se encuentra en fase de negociación para la elaboración del nuevo Convenio Colectivo de la CTSS.

5.5. Prestakuntza

5.5.1. Prestakuntzaren alorrean ezarritako politikak

DTKren zerbitzuaren kalitatea ez da bakarrik berrikuntza teknologikoan oinarritzen. Era berean, eta oso funtsean, egunero Donostiako hiritarrei eta hiria bisitatzen dutenei zerbitzua ematen dieten profesionalak prestatzeko jarduerak egituratzen dira. Hori dela eta, DTK-k gidatze moduaz, efizientziaz, segurtasunez, giza harremanez eta euskaraz etengabe prestakuntza eskaintzen die bere langileei, haiek zerbitzu profesionala eta eraginkorra eman dezaten beren eguneroko jardunean.

2024an **7.352,50 prestakuntza ordu** eman dira, hau da, 12,36 ordu pertsonako.

2024an emandako prestakuntza saio nagusiak izan dira Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria eskuratzekoa eta lan arriskuen prebentzioaren alorrean trebatzekoa.

Hona hemen 2024an emandako ikastaroak eta ikastaro bakoitzaz baliatu diren langileen kopurua:

5.5. Formación

5.5.1. Políticas implementadas en el campo de la formación

La calidad del servicio de la CTSS no solo se basa en la innovación tecnológica. También, y de manera más fundamental, se vertebra en la capacitación de los profesionales que cada día prestan servicio a los ciudadanos y las ciudadanas de San Sebastián, y las personas que visitan la ciudad. Es por ello que la CTSS ofrece a su personal formación continua en conducción, eficiencia, seguridad, relaciones humanas y euskera, para dar así un servicio profesional y eficaz día a día.

Durante el año 2024 se han impartido **7.352,50 horas de formación**, lo que equivale a 12,36 horas por persona.

La formación impartida en 2024 se ha centrado en el Certificado de Aptitud Profesional CAP, así como la formación en materia de prevención de riesgos laborales.

A continuación, se detallan los cursos impartidos a lo largo de 2024 y número de trabajadores/as beneficiados/as por cada curso:

EMANDAKO IKASTAROAK CURSOS IMPARTIDOS	PARTE HARTZAILE KOP. Nº PARTICIPANTES
CAP	112
HASIERAKO PRESTAKUNTZA / FORMACIÓN INICIAL	39
IBILGAILU ELEKTRIKOEKIN ETA HIBRIDOEKIN GIDATZEA CONDUCCIÓN VEHÍCULOS ELÉCTRICOS E HÍBRIDOS	39
TAILERREKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA FORMACIÓN PERSONAL DEL TALLER	48
AUTOBUS ELEKTRIKOAK MANEIATZEKO IKASTAROA CURSO DE MANEJO DE AUTOBUSES ELÉCTRICOS	484
SUTEAK ITZALTZEKO IKASTAROA CURSO DE EXTINCIÓN DE INCENDIOS	10
LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO PRESTAKUNTZA FORMACIÓN PREVECIÓN RIESGO LABORALES	75
BERDNTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA FORMACIÓN EN IGUALDAD	112

5.5.2. Prestakuntzan egindako inbertsioa kategoriako

Hurrengo taulan agertzen da prestakuntzan egindako inbertsioa, sekzioka:

5.5.2. Inversión de formación por categoría

La inversión en formación por secciones se muestra en la siguiente tabla:

ATALAK / SECCIONES	2023KO INBERTSIOA INVERSIÓN 2023 (€)	2024KO INBERTSIOA INVERSIÓN 2024 (€)
ADMINISTRARIAK ETA TEKNIKARIAK ADMINISTRATIVOS/AS Y TÉCNICOS/AS	1.381,94	75,10
IKUSKATZAILEAK INSPECTORES/AS	4.380,48	4.124,99
GIDARIAK PERSONAL CONDUCCIÓN	115.318,35	192.552,69
TAILERRAK TALLERES	15.289,34	26.083,99
GARBIKETA LIMPIEZA	6.398,11	6.531,81
ZERBITZU OSAGARRIAK SERVICIOS AUXILIARES	-	228,02

Kostu horren barruan sartzen dira bai gidarien prestakuntza, bai prestakuntza egingo duten gidarien ordezkapena.

Este coste incluye tanto la formación como la sustitución del personal de conducción para que pueda realizar la formación.

5.5.3. Prestakuntza orduak kategoria profesionalen arabera

2024an **7.352,50 prestakuntza ordu** eman dira, hau da, 12,36 ordu pertsonako.

Gidariek Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria eskuratzeko ikastaroak egin dituzte. Guztira, **3.920 ordu** egin dituzte.

2024an autobus elektrikoak maneiatzeko ikastaro bat eman zaie gidari eta tailerreko, garbiketako eta ikuskaritzako langile guztiei; guztira **1.210 ordu** egin dira.

Tailerreko langileek prestakuntza espezifikoa jaso dute mantentze lanen protokoloen eguneraketari buruz, sartu berri diren ibilgailuen premietara egokitzeko, batez ere ibilgailu hibrido eta elektrikoak baitira. Guztira, **156 ordu** egin dituzte.

5.5.3. Cantidad de horas de formación por categorías profesionales

Durante el año 2024 se han impartido **7.352,50 horas de formación**, lo que equivale a 12,36 horas por persona.

El personal de conducción ha realizado cursos de Certificado de Aptitud Profesional (CAP). En total han realizado **3.920 horas.**

En el año 2024 se ha impartido un curso de manejo de autobuses eléctricos a todo el personal de conducción, taller, limpieza e inspección; realizando un total de **1.210 horas**.

El personal de taller ha recibido formación específica en la actualización de los protocolos de mantenimiento para adecuarse a las necesidades de los vehículos de nueva incorporación, mayoritariamente vehículos híbridos y eléctricos. En total han realizado **156 horas**.

ATALAK / SECCIONES	2023KO ORDUAK HORAS 2023	2024KO ORDUAK HORAS 2024
ADMINISTRARIAK ETA TEKNIKARIAK ADMINISTRATIVOS/AS Y TÉCNICOS/AS	48	5
IKUSKATZAILEAK INSPECTORES/AS	152	127
GIDARIAK PERSONAL DE CONDUCCIÓN	4.135	6.128
TAILERRAK TALLERES	565	871
GARBIKETA LIMPIEZA	233	211
ZERBITZU OSAGARRIAK SERVICIOS AUXILIARES	0	9

5.5.4. Lantokian euskara normalizatzeko prestakuntza

2005ean, Donostiako Tranbia Konpainiak helburu estrategiko gisa ezarri zuen euskararen erabilera modu sistematikoan garatzea, bai konpainiako langileen artean, bai kanpokoekin ere, erabiltzaile mailan zein hornitzaile, azpikontratista eta erakunde publikoekiko kudeaketan.

2021eko martxotik, Konpainia V. Euskara Plan Estrategikoaren aplikazioan murgilduta dago. Plan horren bidez, konpainiaren hizkuntza irizpideak, gauzatu beharreko ekintzak eta prestakuntza planak ezartzen dira, guztia indarrean dagoen arau esparruaren arabera.

Hauek izan dira 2024ko helburu nagusiak eta helburu horiei lotuta garatu diren ekintzak:

5.5.4. Formación para la normalización del euskera en el lugar de trabajo

En 2005 la Compañía del Tranvía de San Sebastián estableció como objetivo estratégico desarrollar el uso del euskera de forma sistemática tanto entre el personal de la Compañía como con el exterior, tanto a nivel de usuario/a como a nivel de gestión con proveedores, subcontratistas y entidades públicas.

Desde marzo de 2021 la Compañía se encuentra inmersa en la aplicación del V. Plan estratégico de euskera por el cual se establecen los criterios lingüísticos de la compañía, las acciones a llevar a cabo y los planes de formación, todo ello ajustado al marco normativo vigente.

Los principales objetivos y acciones asociadas desarrollados en 2024 han sido:

- Euskararen ezagutza areagotzea:
    - Mintzasaioak antolatzea.
    - Oinarrizko mailako euskara ikastaroa, Moodle eta online sistemaren bidez.
    - Oinarrizko euskara mailako ikastaroa, gidarientzat bereziki.
- Erabilera areagotzea: administrazioko langileekin banakako elkarrizketak egin dira, langile bakoitzaren egoera ezagutzeko, eta euskara lantzeko eta hobetzeko baliabideak eskaini zaizkie.
- Euskara Normalizatzeko Plana instituzionalizatzea: urteko kudeaketa plana egitea, Dbuseko koordinazio taldearekin bilerak egitea, eta Udaleko euskara teknikariekin jarraipena eta koordinazioa egiteko bilerak egitea.

- Incrementar el conocimiento del euskera:
    - Organización de Mintzasaioak.
    - Curso de euskera nivel básico mediante Moodle y sistema on line.
    - Curso de euskera nivel básico específico para el personal de conducción.
- Incrementar el uso: se han realizado entrevistas individuales con el personal de administración para conocer la situación de cada una y se les ha ofrecido recursos para trabajar y mejorar el euskera.
- Institucionalizar el Plan de Normalización del euskera: realización del plan anual de gestión, reuniones con el equipo de coordinación en Dbus, reuniones de seguimiento y coordinación con las técnicas de euskera del Ayuntamiento.

Jarraian, euskararen ezagutzak 2024an zuen banaketa erakusten da.:

A continuación, se muestra la distribución del conocimiento de euskera en 2024:

Conocimiento del euskera en 2024



Bestalde, Konpainiako lankide guztiak "Euskararen Txokoa" izeneko atalera sar daitezeke langilearen ataritik. Atal horretan euskara hobetu dezakete link interesgarrien bitartez, eta hizkuntza politikari buruzko eta euskara ikastaroak edo DTK-ko langileen artean euskaraz hitz egiteko saioen gaineko informazioa eskuratu dezakete.

Konpainian, egunerokoan hizkuntza ikastea eta erabiltzea sustatzeaz gain, langile guztientzako sustapen eta motibazio ekintza puntualak egiten dira.

Por otro lado, todo el personal de la Compañía puede acceder desde el portal del empleado/a la sección "Euskararen Txokoa", sección que les permite mejorar el idioma a través de enlaces de interés, información político-lingüística, e información también relacionada con cursos de euskera o sesiones para practicar el idioma entre los/as trabajadores/as de la CTSS.

En la Compañía no solo se fomenta el aprendizaje y la utilización del idioma en el día a día, sino que se realizan acciones puntuales de fomento y motivación para todo el personal.

5.6. Berdintasuna

5.6.1. Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzeko hartutako neurriak

2018az geroztik DTK *BAI SAREA*-ko kidea da, hau da, lan eremuan **berdintasuna bultzatzeko eta bermatzeko** helburuarekin Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatuta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean laguntzen duten erakundeek osatutako sareko kidea.

Sarearen helburua da erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako **esperientziak, tresnak eta metodologiak partekatu** ahal izatea.

2024an Konpainiak BAI SAREAk antolatutako ekintza guztietan parte hartzen jarraitu du, bereziki "Gune Seguruei" buruzko lantaldean.

5.6. Igualdad

5.6.1. Medidas adoptadas para promover la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres

Desde 2018 CTSS forma parte de *BAI SAREA*, la red de Entidades Colaboradoras para la igualdad de mujeres y hombres impulsada por el Instituto Vasco de la Mujer-Emakunde con el objetivo de **fomentar y garantizar la igualdad** en el ámbito laboral.

El objetivo de la red es que las entidades puedan **compartir experiencias, herramientas y metodologías** en torno a la igualdad entre mujeres y hombres.

En 2024 la Compañía ha continuado participando en todas las acciones organizadas por BAI SAREA, especialmente en el grupo de trabajo sobre "Espacios Seguros".

5.6.2. Berdintasun planak, enplegua sustatzeko hartutako neurriak, jazarpen sexualaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloak

2019aren bukaeran berdintasunaren alorreko aholkulari bat kontratatu zen. Emakundek homologatutako aholkulari bat da, eta diagnostiko berria egingo du, III. Berdintasun Plana diseinatu ahal izateko. Diagnostiko hori 2020ko martxoan hasi zen egiten, baina prozesua eten egin zen ustekabean eta bat-batean Covid-19a iritsi zelako, eta horrek baldintzatu egin du hainbat proiekturen bilakaera.

Azkenik, 2021eko martxoan onartu zen plana, alde guztien adostasunarekin.

Hala ere, egindako barneko zein kanpoko komunikazio guztietan hizkuntzaren erabilera inklusiboa erabiltzeko ahalegina egiten jarraitu da, erabilitako irudiei ere garrantzia emanda.

2024an zehar, Berdintasun Batzordea sei aldiz bildu da. Jarraian, egindako ekintza nagusiak zehaztuko dira:

- Martxoaren 8arekin bat eginda, langile guztientzako ohar bat argitaratu zen, 2023an egindako ekintza nagusien berri emateko.

5.6.2. Planes de Igualdad, medidas adoptadas para promover el empleo, protocolos contra el acoso sexual y por razón de sexo

A finales de 2019 se contrató una consultora en materia de igualdad homologada por Emakunde para realizar un nuevo diagnóstico y poder diseñar el III Plan de Igualdad. Se comenzó con dicho diagnóstico en marzo de 2020, pero el proceso se vio interrumpido con la inesperada y repentina llegada de la Covid-19 que ha condicionado la evolución de diversos proyectos.

Finalmente, el plan se aprobó en marzo de 2021 con el acuerdo de todas las partes.

Asimismo, se ha continuado haciendo un esfuerzo en emplear un uso inclusivo del lenguaje en todas las comunicaciones tanto internas como externa realizadas, dando también su importancia a las imágenes utilizadas.

A lo largo del año 2024, la Comisión de Igualdad se ha reunido en seis ocasiones. A continuación, se pasa a detallar las principales acciones realizadas:

- Coincidiendo con el 8 de marzo se publica una nota para todo el personal informando de las principales acciones llevadas a cabo en el año 2023.

- Ordainsarien erregistroa egin da.
- Enpresa Batzordeko kide diren langileei berdintasunari buruzko prestakuntza eman zaie.
- Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren inguruan, azaroak 25, informazio ohar bat argitaratu zen, berdintasuna@dbus.es helbide elektronikoa plantilla osoaren esku jarriz, Berdintasun Batzordeari iruzkinak, kexak, iradokizunak edo hautemandako puntu kritikoak helarazi ahal izateko, erabateko konfidentzialtasunez.

- Enpresan dauden kontziliazio neurriez baliatzen diren langileen gaineko datuak jaso eta aztertu dira, genero ikuspegitik. Azpimarratzekoa da lanaldi murrizketa dela Dbuseko langileek gehien erabiltzen duten kontziliazio neurria. Azpimarratzekoa da 2024an lanaldi murrizketak %22,58 gehiago izan direla, 2023koekin alderatuta, taula honetan ikus daitekeen moduan:

- Se ha realizado el registro retributivo.
- Se ha impartido formación en igualdad a las personas trabajadoras que forman parte del Comité de Empresa.
- Con motivo del Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las mujeres, 25 de noviembre, se publicó una nota informativa poniendo a disposición de toda la plantilla la cuenta de correo berdintasuna@dbus.es, con el objeto de poder trasladar a la Comisión de igualdad cualquier comentario, queja, sugerencia y la detección de algún punto crítico, con total confidencialidad.
- Se han recogido y analizado desde la perspectiva de género, los datos de acogimiento de la plantilla a las diferentes medidas de conciliación existentes en la empresa. Destacar que la reducción de jornada es la medida más utilizada por el personal de Dbus. Destacar, que en el año 2024 se han incrementado las reducciones de jornada un 22,58% respecto al año 2023, tal y como se recoge en el siguiente cuadro:

	2023 URTEA AÑO 2023	2024 URTEA AÑO 2024
EMAKUMEAK MUJERES	**11**	**18**
GIZONAK HOMBRES	**82**	**96**
GUZTIRA **TOTAL**	**93**	**114**

2024ko martxoaren 4an, Dbusek, **garraio publikoko 8 operadorerekin batera, lankidetza hitzarmen bat** sinatu zuen, ekimenari atxikitako 8 erakundeetakoren bateko kide izan eta **genero indarkeriaren biktima diren langileen enpresen arteko mugikortasuna errazteko**. Dbusez gain, hauek dira hitzarmenarekin bat egin duten enpresak: Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya (FGC), TUGSAL, Emtusa, Alsa, TRAM, Sagales eta Vectalia.

El 4 de marzo de 2024, Dbus, **junto a 8 operadoras de transporte público ha firmado un convenio de colaboración** para **facilitar la movilidad interempresarial de trabajadoras víctimas de violencia de género** que formen parte de alguna de las 8 organizaciones adheridas a la iniciativa. Además de Dbus, las empresas que se han sumado a este convenio son: Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya (FGC), TUGSAL, Emtusa, Alsa, TRAM, Sagalés y Vectalia.

2024an bitan elkartu da Atuceko Mugikortasun eta Genero Batzordea: apirilean Valentzian, eta urrian DTKren egoitza sozialean.

A lo largo del año 2024 se ha reunido en dos ocasiones la Comisión de Movilidad y Género de Atuc: en el mes de abril en Valencia y en el mes de octubre en la sede social de la CTSS.

2024an, BAI SAREAk antolatutako ekintza guztietan parte hartzen jarraitu du Konpainiak; bereziki "Gune Seguruei" buruzko lantaldean parte hartu du.

En 2024 la Compañía ha continuado participando en todas las acciones organizadas por BAI SAREA, especialmente en el grupo de trabajo sobre "Espacios Seguros".

5.6.3. Irisgarritasun unibertsala desgaitasuna duten pertsonentzat

DTK-k konpromiso sendoa hartu du bere autobus zerbitzuak denontzat irisgarriak izatea bermatzeko. Hori dela eta, autobus flotaren %100 desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarriak dira.

Horretarako, autobus guztiek hau dute: sartzeko eta irteteko arrapala; mugikortasun murriztua eta premia bereziak dituzten pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak, beste kolore batez bereizita; eta

5.6.3. Accesibilidad universal para personas con discapacidad

La CTSS tiene el firme compromiso de garantizar el acceso universal a sus servicios de autobús. Es por ello que el 100% de la flota de autobuses es accesible para personas con discapacidad.

Todos los autobuses están dotados de rampa de acceso, asientos reservados para personas con movilidad reducida y necesidades especiales distinguidas a través del color del asiento y los pictogramas informativos, audios

informaziorako piktogramak eta audioak, bai autobusaren barruan, bai kanpoan; linea, geltoki eta ordutegien gaineko irudi bidezko informazioa; eta gurpildun aulkietarako, taka-takak eta mugikortasuna murriztua duten pertsonentzako beste ibilgailu mota batzuetarako erreserbatutako lekuak autobusen barruan.

informativos tanto en el interior del autobús como en el exterior, información visual sobre líneas, paradas y horarios, y espacios reservados dentro de los autobuses para el acceso de sillas de ruedas, andadores y otro tipo de vehículos para personas de movilidad reducida.

Horrez gain, 117 panel elektroniko daude eta horietako 106 Led panelak dira eta 11 TFT pantailakoak. Panel horiek lineei eta iritsiera denborei buruzko informazioa ematen dute. Panel guztiek audio sistema bat daukate, ikusteko zailtasunak dituzten pertsonek aktibatzeko moduan. Semaforoetako audioa aktibatzeko erabiltzen diren eta ONCEko bazkideen eta beste kolektibo batzuetako kideen esku dauden aginte estandarren bitartez aktibatzen da panel horien audio sistema.

Por otro lado, son 117 los paneles electrónicos disponibles, 106 de Leds y 11 de pantalla TFT. Estos paneles informan sobre líneas y tiempos de llegada. La totalidad de los paneles cuenta con un sistema de audios que las personas con dificultades de visión pueden activar a través de los mandos estándares que se utilizan para activar el audio de y que son de acceso general para las personas socias de la ONCE y otros colectivos.

Gainera, 2023an Navilens gidaritza sistemaren inplementazioa jarri zuen martxan DTK-k. **Distantzia handira irakur daitezkeen QR kodeen** sistema bat da, ikusmen desgaitasuna duten pertsonei Donostiako autobus geltokiak modu autonomoan kokatzeko aukera ematen diena. Lokuzioen bidez, seinaleztapen sistema horrek aukera ematen du testuinguruan jarritako informazio eskuragarria lortzeko, hala nola **geralekuaren izena**, bai eta **autobusen iritsiera ordua** denbora errealean eta autobusen helmuga ere.

Además, en 2023 la CTSS puso en marcha la implementación en las marquesinas del Sistema guiado Navilens: un sistema de **códigos QR que se pueden leer a gran distancia** y permite a las personas con discapacidad visual ubicar de manera autónoma las paradas de autobús de Donostia / San Sebastián. A través de locuciones, este sistema de señalización permite orientarse y obtener información contextualizada accesible, como, por ejemplo, **el nombre de la parada**, así como **la llegada de los autobuses** en tiempo real y su destino.

Irismen handiko markagailu bisual horiek, halaber, baliagarriak dira beste dibertsitate funtzional sentsorial edo kognitibo motaren bat duten pertsonentzat, horiek ere orientatu eta informatu baitaitezke irudien eta seinale akustikoen bidez eskura daitezkeen edukiei esker.

Asimismo, estos marcadores visuales de largo alcance también sirven de orientación e información a personas con otro tipo de diversidad funcional sensorial o cognitiva, gracias a los contenidos accesibles mediante imágenes y señales acústicas.

2024an sistema ezartzen jarraitu da, instalazio berriko geltokietan.

En 2024 se ha continuado con la implantación del sistema en las paradas de nueva instalación.

DTKren instalazioei dagokienez, eraikina egokituta dago mugikortasun urria duten pertsonentzat. Lau igogailu dituzte, eraikinaren bost solairuetara iristeko, eta arrapala eta beste elementu batzuk ere badituzte, instalazioen barruan pertsonak libreki mugitzeko egon daitezkeen oztopoen %100 ezabatzeko.

En cuanto a las instalaciones de la CTSS, el edificio está acondicionado para el acceso de personas con movilidad reducida. Cuenta con cuatro ascensores de acceso a las cinco alturas del edificio, rampas y otros elementos que eliminan el 100% de los obstáculos que pudiera haber para el libre movimiento de personas dentro de la propiedad.

5.6.4. Diskriminazioari aurre egiteko eta aniztasuna kudeatzeko politikak

DTK saiatzen da enplegatu guztiak inpartzialtasunez eta errespetuz tratatuak izan daitezen, hori lortzen lagunduko duen lan ingurune bat sortuz, eta horretarako arreta berezia jartzen du aukera berdintasunak bultzatzeko, generoari zein gaitasunei dagokienez, horrela era guztietako diskriminazio profesionalak desagerrarazteko.

5.6.4. Políticas contra la discriminación y gestión de la diversidad

La CTSS se esfuerza por crear un entorno de trabajo en el que todos los empleados/as sean tratados/as con imparcialidad y respeto, poniendo especial atención en impulsar la igualdad de oportunidades en cuanto a género y capacidad, eliminando de esta forma cualquier tipo de discriminación profesional.

6. GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA

DTK-k hainbat organo ditu Konpainiaren langileen eskubideen gardentasuna eta errespetua bermatzeko. Giza eskubideekin

6. RESPETO A LOS DERECHOS HUMANOS

La CTSS cuenta con diferentes órganos que garantizan la transparencia y el respeto de los derechos de los/as trabajadores/as de la

lotura duten erabaki horiek guztiak Enpresa Batzordean aztertzen dira, langile guztiak ordezkatzen dituen organoa baita.

Horrez gain, aurretik esan den moduan, plantillaren %100 hitzarmen kolektiboaren menpe dago. Hitzarmena Konpainiaren sindikatu ordezkariek negozioatutako eta adostutako dokumentua da eta bertan arautzen dira langile guztien eskubideak eta obligazioak.

Era berean, Konpainiak Euskara Plan bat du, ordezkari sindikalek eta koordinazio taldeak osatutako Batzordea Iraunkorrak koordinatua eta bermatua, langileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

Adierazi behar da orain arte ez dela egon Giza Eskubideen urraketagatik salaketarik.

7. USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKA

DTK-n kontratazio publikoaren mekanismoak erabiltzen dira, Estatuan eta Europan indarrean dauden arauen arabera, kontratazioetan eta zerbitzuen esternalizazioan gardentasuna eta zuzentasuna bermatuta. DTKren kontuak urtero ikuskatzen dira, eta aldian-aldian Euskal Herriko Kontu Auzitegiak ikuskatzen ditu.

Compañía. Todas estas decisiones relacionadas con los derechos humanos son analizadas con el Comité de Empresa, órgano que representa a la totalidad de los/as trabajadores/as.

Por otro lado, tal como se ha indicado anteriormente, el 100% de la plantilla está sujeta al convenio colectivo, un documento negociado y acordado con los representantes sindicales de la Compañía, que rige los derechos y obligaciones de todo el personal.

Asimismo, la Compañía cuenta con un Plan de Euskera, coordinado y avalado por la Comisión Permanente compuesta por los representantes sindicales, así como por el equipo de coordinación, en aras de garantizar los derechos lingüísticos tanto de su personal como de sus usuarios/as.
Cabe indicar que no existen hasta la fecha denuncias por vulneración de los Derechos Humanos.

7. LUCHA CONTRA LA CORRUPCIÓN Y EL SOBORNO

La CTSS se rige por los mecanismos de contratación pública según la normativa estatal y europea en vigor, garantizando la transparencia y la equidad en la contratación y externalización de los servicios. Las cuentas de la CTSS son auditadas anualmente y periódicamente fiscalizadas por el Tribunal vasco de cuentas.

Era berean, DTK-k irabazi asmorik gabeko hainbat erakunderekin batera egiten du lan modu desinteresatuan eta doan. Ez du babesletza eta dohaintza hirugarrenak finantzatzeko bide gisa; gizartea sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko eta kontzientziatzeko baterako ekintzak egiten ditu, modu altruistan eta kontraprestaziorik gabe.

Atal honetan aipatutako informazioa txosten honetako 4.1.4 atalean sartu da (Elkarketa eta Babesletza Ekintzak).

Azpimarratzekoa da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1937 Zuzentarauan (EB) eta horren ondorengo transposizioan xedatutakoaren arabera, eta 2021/241 Erregelamenduak (EB), Espainiako Gobernuaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Berreskurapen Plana ezartzen dituenak xedatzen duenaren arabera, Donostiako Tranbia Konpainia SAk, Donostiako Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren bitartez, Plan hori egokitzeko prozedurari ekin zion, erakundearen barne arau gisa.

Horregatik, 2022ko martxoan, Donostiako Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartu zen, Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako akordio baten bidez.

Además, la CTSS colabora con diferentes entidades sin ánimo de lucro de manera desinteresada y gratuita. No utiliza el patrocinio y la donación como medios de financiación de terceros, sino que realiza acciones conjuntas de sensibilización y concienciación a nivel social, de manera altruista y sin contraprestación.

La información mencionada en este apartado se ha incluido en el apartado 4.1.4 Acciones de Asociación y patrocinio de este mismo informe.

Cabe destacar que de conformidad a lo dispuesto en la Directiva (UE) 2019/1937 del Parlamento Europeo y del Consejo, y su posterior transposición dentro de la legislación española; y el Reglamento (UE) 2021/241, por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR) y el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR) del gobierno español, conllevó a que la Compañía del Tranvía de San Sebastián S.A., a través del Plan de Medidas Antifraude del Ayuntamiento de San Sebastián, inició el procedimiento de adaptación de dicho Plan como normativa interna para la Entidad.

Por ello, en marzo de 2022 se aprobó mediante un acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local el Plan de Medidas Antifraude del Ayuntamiento de San Sebastián.

Plana onartzearen ondorioz, Donostiako Tranbia Konpainia SAU Planean aurreikusitako kudeaketa eta osotasun egituran txertatu zen.

La aprobación conllevó la integración de Compañía del Tranvía de San Sebastián, S.A.U. en la estructura de gestión y de integridad prevista en el Plan.

Era berean, planean erabaki zen dokumentu hauek izango zirela Planaren parte:

- Europako funtsen kudeaketako Osotasun protokoloa.
- Arriskuen ebaluazioaren kudeaketa.
- Arriskuen mapa.
- Kontratazioko arriskuen mapa.
- Dirulaguntzak ematean dauden arriskuen mapa.
- Bandera gorrien identifikazioa.
- Interes gatazken testa, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioa.
- Diagnostikoa.

Asimismo, en el plan se acordó que formarían parte del Plan los siguientes documentos:

- Protocolo de integridad en la gestión de fondos europeos.
- Gestión de evaluación de riesgos.
- Mapa de riesgos.
- Mapa de riesgos en la contratación.
- Mapa de riesgos en la concesión de subvenciones.
- Identificación de banderas rojas.
- Test de conflictos de intereses, prevención del fraude y corrupción.
- Diagnóstico.

Urteko Kontuen eta Kudeaketa Txostenaren sinaduren diligentzia

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA S.A.U. -ko Administrazio Kontseluko lehendakariorde den Olatz Yarza Garagorri andreak egiten duen eginbidea, zeinaren bidez jasota geratzen den Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideek 2024eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari dagozkion Egoera Balantzea, Galdu-Irabazien Kontua, Ondare Garbiren Aldaketen Egoera-orriak, Diru-Fluxuen Egoera-orria, Memoria eta Kudeaketa Txostena formulatu dituztela 2025ko martxoaren 31ko bileran eta horren ondoren denek dokumentu hau izenpetu dutela. Dokumentu honetan jasotzen dira, batetik, 42 orriz osatzen diren Urteko Kontuak eta, bestetik, 108 orriz osaturiko Kudeaketa Txostena, orri guzti hauek Lehendakariordeak onetsiak egonik, Sozietateko Kontseilukide guztiek izenpetuta daude, beren izen eta abizenak ondoren agertuz, eta nik horren guztiaren fede ematen dudalarik.

Donostia, 2025ko martxoaren 31an

Diligencia de firma de las Cuentas Anuales y el Informe de Gestión

Diligencia que levanta la Vicepresidenta del Consejo de Administración de COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. Dª Olatz Yarza Garagorri, para hacer constar que tras la formulación del Balance de Situación, la Cuenta de Pérdidas y Ganancias, los Estados de Cambios en el Patrimonio Neto, el Estado de Flujos de Efectivo, la Memoria y el Informe de Gestión correspondientes al ejercicio cerrado el 31 de diciembre de 2024 por los miembros del Consejo de Administración de la sociedad en la reunión del día 31 de marzo de 2025, han procedido todos ellos a suscribir el presente documento, que se compone de las Cuentas Anuales de 42 hojas y el Informe de Gestión de 108 hojas, visadas todas ellas por la Vicepresidenta, firmando todos y cada uno de los Consejeros de la Sociedad, cuyos nombres y apellidos constan a continuación, de lo que doy fe.

San Sebastián, 31 de marzo de 2025

Sinaduren Diligentzia

Donostia, 2025ko martxoaren 31an

Administrazio kontseilua

Eneko Goia Laso
Lehendakaria/ Presidente

Victor José Lasa Briz
Kontseilu-kidea/ Consejero

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
Kontseilu-kidea/ Consejera
Oharra: arrazoi pertsonalengatiko ausentzia/
Nota: ausencia por motivos personales

Ane Oyarbide Ochoa
Kontseilu-kidea/ Consejera

Miren Albistur Garmendia
Kontseilu-kide/ Consejera

Jesús María Mur Urretavizcaya
Kontseilu-kide/ Consejero

Diligencia de Firma

San Sebastián, 31 de marzo de 2025

El Consejo de Administración

Olatz Yarza Garagorri
Lehendakari-ordea / Vicepresidenta

María Jesús Idoeta Madariaga
Kontseilu-kidea/ Consejera

Kerman Orbegozo Uribe
Kontseilu-kidea/ Consejero

Carles Fernández Mármol
Kontseilu-kidea/ Consejero

Fidel Arizmendi Oyarzabal
Kontseilu-kidea/ Consejero

Francisco Javier González Penas
Kontseilu-kidea/ Consejero